



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEN BAITA, AGINDU BAT SORTZEKO, EKAINAREN 18KO 78/2024 DEKRETUAN JASOTAKO NEURRI UNIBERTSALEI BURUZ. DEKRETU HORI HEZKUNTZA-SISTEMA INKLUSIBO BATEN ESPARRUAN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO DA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXEETAKO IKASLEENTZAT.

2022ko uztailaren 15ean, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legea argitaratu zen EHAA. Lege horrek beste testu artikulatu oso batean sartzen eta biltzen ditu xedapen orokorrak egiteko prozeduraren arloko arau guztiak, eta orain arte indarrean zegoen Legea ordeztzen du, 8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarena.

Har dezagun, zehazki, 11. artikulua: Aldez aurreko kontsulta herritarrei:

“1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako aldez aurretiko kontsulta-izapide horretan, behar diren neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkartza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarten parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio aldez aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, administrazio langile zein herritarra izan.

2. Aldez aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaille izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.

3. Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

4. Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemaile bat aldez aurretik onetsi ondorengo araugintza-prozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoen izapideak. Memorian horrela jasota utzi beharko da, hala bada.”



Har dezagun 78/2024 Dekretua, ekainaren 28koa, aniztasunari hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan erantzutekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat. Dekretu horretan, neurri unibertsal batzuk datoz jasota; bada, Hezkuntza Sailak aurreikusita dauka agindu-proiektu bat egiten hastea, neurri horiek arautzeko.

Xedapen Orokorrek egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorriz, herritarrek araudia egiteko prozeduran parte har dezaten sustatze aldera, arau-proiektua egin baino lehen, kontsulta publikoko aldi bat irekitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren web-atariaren bidez, herritarren iritzia eta etorkizuneko araudiaren eragin handiena jasango duten erakunde esanguratsuenen iritzia jaso ahal izateko, honako gai honekin lotuta:

1.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak:

Har dezagun, berriro, 78/2024 Dekretua, ekainaren 28koa, hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzutekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat. Han ulertuta dagoenez, hezkuntza-arloko politika, kultura eta jardunbideen multzoari deritzo aniztasunari erantzutea (planak, metodologiak, estrategiak, neurriak, laguntzak eta abar), betiere multzo hori, ikasleen garapena erraztera bideratuta ez ezik, haien gaitasunetara, ikasteko estilora, interesetara, egoera pertsonaletara, sozialetara, osasun-baldintzetara eta baldintza ekonomiko, kultural eta funtzionaletara egokituta ere baldin badago.

Dekretuak dionez, laguntza-neurriak zera dira: hezkuntza kalitatezkoa eta inklusiboa bermatzen duten guztiak, ziurtatzen dutenak sisteman aukera-berdintasunean eta ekitate-baldintzetan eskolatzea, irautea, parte hartzea eta bertatik irtetea. Eta neurri eta laguntza horiek ematen diote ikastetxeari aukera hezkuntza-testuinguru inklusibo batzuk sortzeko, haien bitartez ikaskuntzak, konpetentzien garapena, bizikidetza positiboa eta ongizate pertsonala errazteko.

Neurri unibertsalak zer diren ere adierazten du: hezkuntzaren esparru guztietan eta ikaskuntza-ingurune guztietan eragiten dute. Agindu honen bidez, neurri unibertsal horien lana zabaldu, antolatu eta arautu nahi da. Helburua da hezkuntza-komunitateak arau-jarraibide praktiko eta zuzenak izatea, metodologia nola aldatu jakiteko, eskola inklusiboa sustatzearen.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da arau-esparru zabalagoa lortzea, gure hezkuntza-sisteman bizikidetza positiboa eraikitzeko prozesua babestuko duena.

2.- Proiektatutako erregulazioaren beharra eta indarrean dagoen araudia.

Ikus dezagun ea orain arte zer arau baliatu diren hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuna emateko:

- 17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena. II. TITULUAN (Hezkuntzarako eskubidea eta bizikidetza positiboa) jartzen du EAEko ikasleek hezkuntza integrala eta inklusiboa jasotzeko eskubidea dutela, pluraltasunaren, gizon-emakumeen berdintasunaren, aniztasunaren eta tolerantziaren printzipio demokratikoak errespetatuz.
- Osatu nahi den dekretua bera: Ekainaren 18ko 78/2024 DEKRETUA, hezkuntza-sistema

inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzutekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat. Han ulertzen den moduan, aniztasunari erantzutea deritzo hezkuntza-arloko politika, kultura eta jardunbideen multzoari (planak, metodologiak, estrategiak, neurriak, laguntzak eta abar), betiere multzo hori, ikasleen garapena erraztera bideratuta ez ezik, haien gaitasunetara, ikasteko estilora, interesetara, egoera pertsonaletara, sozialetara, osasun-baldintzetara eta baldintza ekonomiko, kultural eta funtzionaletara egokituta ere baldin badago.

- Hezkuntzako etapak arautzen dituzten dekretuak (77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzari buruzkoa; 77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzari buruzkoa; eta 77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa Batxilergoari buruzkoa). Dekretu horietan jasota dagoenez, Hezkuntzako esku-hartzeak ikasleen aniztasuna aitortu eta errespetatu behar du. Halaber, ikasle guztien oinarrizko kompetentzien garapen gorenara lortzera bideratutako arreta espezializatua bermatu behar du. Aniztasunari erantzuteko neurriek ikasleen hezkuntza-premiak gogoan hartu behar dituzte, haien ingurune normalizatu eta inklusiboan, haien ikasteko interesak, motibazioak eta gaitasunak kontuan harturik, eta, nolanahi ere, neurri horiek Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak eta dagokion titulazioa lortzeko aukera emango dien bidea izan beharko dute. Halaber, hezkuntzako laguntza-premia espezifikoren bat duten ikasleak goiz detektatzeko beharra planteatzen dute.
- Ikus dezagun zer jartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko 4/2018 Legeko 3. artikuluan eta ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoan: oinarrizko Lanbide Heziketak ikasleen aniztasunari erantzuteko printzipioari jarraitzen diola, eta aniztasunari erantzuteko neurrien helburua dela ikasleen hezkuntza-premia zehatzei erantzutea eta dagozkion konpetentzia profesionalekin lotutako ikaskuntza-emaitzak lortzea; ildo beretik, adierazten du ikasleei helburuak eta dagokien titulazioa lortzeko aukera emango dien hezkuntza inklusibo baterako eskubidea bermatu behar zaiela. Gainera, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen Dekretua aldatzen duen otsailaren 2ko 32/2016 Dekretuan jasotako Lanbide Heziketaren helburuen artean txertatzen da “pertsonaren garapen integrala lortzea, alde batera utzita sexuaren araberako estereotipoak eta rolak; bereizkeria mota oro arbuatzea, eta generoaren mugarik gabeko orientazio akademikoa eta profesionala bermatzea”.
- Euskal Autonomia Erkidegoko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 3/2005 Legeak, hezkuntzaren arloko administrazio-jardunaren printzipioen artean, honako hau jasotzen du: desabantaila ekonomiko, sozial, kultural edo pertsonalak dituztenen aukera-berdintasuna errespetatu eta sustatu dadila eskolara sartzeko prozesuan eta eskolan dauden bitartean, eta hezkuntza-aukera berberak eman dakizkiela haur eta nerabe guztiei, hezkuntza-prozesua babestu eta eskola-porrota eragotziko duten diskriminazio positiboko ekintza inklusiboak antolatuz horretarako.
- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzkoa. IV. kapituluak hainbat neurri garatzen ditu indarkeria ikastetxeetan prebenitzeko eta goiz detektatzeko, ezinbestekotzat jotzen baita ikastetxeetan jardutea, gizarteratzeko funtsezko inguruneak baitira haurren eta nerabeen bizitzan.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretua, osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan Arreta Goiztiarraren eremuan egiten diren esku-hartzeak antolatzeke eta koordinatzeko oinarritzko arauak ezartzen dituen, Osasunaren, Hezkuntzaren eta Gizarte Zerbitzuen arloetatik. Euskal Autonomia Erkidegoan, askotariko planak, programak eta egitasmoak jarri dira martxan hiru jardun-eremu nagusietan, haurrek gizarte, osasun eta hezkuntza arloan dituzten premiei erantzuteke, osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten administrazioen bidez.

3.- Arauaren helburuak

Proposamen horren helburua da EAEko egungo arau-esparrua hobeto osatzea, aniztasunari hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan erantzuteari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat. Esparru hori, orain, ekainaren 18ko 78/2024 DEKRETUAN araututa dago.

- a) Neurri eta laguntza unibertsalak arautzea: agindu honen bidez, adierazle-sistema bat eta neurri batzuk ezarri nahi dira, ikastetxeek zer inklusio-maila duten ebaluatu eta hobetu ahal izan dezaten, eta, horretarako, jarduera-ildo batzuk eman nahi zaizkie.
- b) Inklusioa denon erantzukizuna da: arauak, II. kapitulan, oinarritzko lau baldintza azaltzen ditu ikastetxeetan inklusioa lortzeko: ikasle bakoitza bere ikaskuntzaren protagonista aktibo gisa inplikatzeko, eta, horretarako, haren presentzia, parte-hartzea eta lorpenak bermatu behar dira. Bigarrenik, familiek hezkuntza-etapa guztietan parte hartu eta lagundu behar dute, batez ere adin goiztiarrenetan. Hirugarrenik, ikastetxeko langile guztien talde-lana behar da, ziurtatzeko curriculumaren koherentzia, bizikidetzagiroa eta ikastetxeko kide izatearen sentimendua. Eta, azkenik, inguruko erakundeen parte-hartzea eta lankidetzak.
- c) Zehazten da zer egin behar den dibertsitateari erantzuteke neurri eta laguntza unibertsal batzuk definitzeko (hori da III. kapitulua). Neurri horiek bi multzotan banaturik daude: alde batetik, hezkuntza-eremu osoan eragiten dutenak, eta, bestetik, zehazkiago eragiten dutenak, ikaskuntza-inguruneetan.
- d) Hezitzaileen erantzukizunak definitzea: asmoa da zehaztea zer funtzio bete behar dituzten zuzendaritza-taldeak, irakasleek eta laguntza-langileek, ikastetxearen autonomia eta talde-lana sustatzeko, hartara hezkuntza inklusiboa konpromiso kolektiboa dela ziurtatzeko, ikasle guztien ekitatea eta garapena ziurtatzearen.
- e) Inklusioari laguntzeko sarerean zeregina: Garbi utzi nahi da sare horrek zer-nolako garrantzia duen langileen prestakuntzarako eta ikastetxeen, hezkuntza-zerbitzuen eta kanpoko eragileen arteko lankidetzarako, gero, horrela, inklusio eraginkorrerako behar diren baliabideak indartzeko eta koordinatzeko.

4.- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Kontuan hartuta dekretu-proiektuaren helburu nagusia ekainaren 18ko 78/2024 DEKRETUAN deskribatutako neurri unibertsalak garatzea dela, (dekretu hori, hain zuzen ere, aniztasunari hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan erantzuna emateko da, Euskal

Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat), ezin da “ezer egin gabe” geratu, izan ere, EAEko hezkuntza-sistema, bestela, jarduteko erreferentzia argirik gabe geratuko litzateke neurri unibertsal horiek ezartzeko orduan.

Beraz, agindu-proiektu berri bat tramitatzen hastea aukeratu da. Izan ere, araua zabaltzeko proposamena biderik onena da bermatzeko Euskal Hezkuntza Sistema behar bezala egokitzen dela eskola inklusibo eta berritzaile bat lortzeko proposamenetara.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Zabalik egongo da etorkizuneko arauak uki ditzakeen instituzio publiko eta pertsona fisiko guztientzat, nahiz erakunde, elkarte edo organizazioentzat.
- Argitaratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko web-atarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Egoitza Elektronikoko iragarkitaulan, Legegunean eta Irekian.
- Hamabost egun balioduneko epea ezartzen da, ukitutako erakundeek, herritarrek eta haien entitateek iradokizunak eta oharrak aurkez ditzaten, egokitza joz gero.

Kontsulta publikoaren tramite hori da, beraz, une honetan bideratzen ari garena, aurreikusitako lege-eskemari jarraituz. Gainera, arau-proiektua egin baino lehen egin da, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan arautzen den prestaketa-fasearen barruan.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak esleitzen dizkidan eskumenei jarraikiz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenik.- Kontsulta publikoaren tramitea egitea, Euskal Hezkuntza Sisteman eta funts publikoekin ordaintzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan bizikidetza positiboa eraikitzea arautzeko xedapen orokorra egiteari dagokionez, xedapen hori prestatu baino lehen.

Bigarrenik.-- Herritarrek eta arauak ukitutako erakundeek, hala nahi badute, agindu honetan azaltzen diren alderdiei buruzko iritzia helaraz ditzakete, hamabost egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den egunean.

Begoña Pedrosa Lobato andrea.
HEZKUNTZAKO SAILBURUA